



Euskal Herriko
Trikitixa Elkartea

L.G.: SS-418-01

www.trikitixa.net · www.trikimailua.com

2013ko ekintzen balorazio positiboa egin du Elkarteak

2013a bukatzen ari dela, aurtengo egitasmoen balantzea egiten hasita, San Josetako jaialdiaren arrakasta, www.trikitixa.net orrialdea berritzea eta fakturazio zebitzua martxan jarri izana nabarmentzekoak izan dira Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen irudiko.

Hona hemen, urteko ekintza nagusien laburpena:

San Josetako Jaialdia: Nazioarteko Jaialdia egiteari utzita, hauxe da Elkarteak antolatzen duen jaialdi ez monografiko bakarra. Lan-talde propioa aritzen da Azpeitiko emanaldi hau antolatzen eta, ez dago zalantzarik, erabateko arrakasta duela. Aurten, 500dik gora ikusle bildu dira Soreasu antzokia erabat betez.

Ikasleentzako materiala sortzen jarraitu du aurten ere Elkarteak: Oinarri musikalak eta moldaketak bi ahotsetara. Oinarri musikaletan, Lantzeko ihauteria, Nahi dut, Larrosa kolorez jantzia, Lesaka bidean, Saltoka eta Frantses Euskalduna piezak prestatu ditu Iban Gurrutzagak.

Diskogintza:

- **Faborez** bildumako zazpigarren alea kaleratu da aurten eta Azkoitian aurkeztu, jendarean. Mamen Maltzeta, Jauregi, Barrenola eta Zabalek grabatu dituzte piezak azken Faborezen.
- **Geure Kolkotik 2013.** Hurrengo orrialdean dituzue, aurkezpen jaialdiaren xehetasunak. Saioa Lizarralde, Zabaleta, Ander Malbadi, Imuntzo eta Alaitz Telletxeak hartu dute parte diskoan.

Infernuko Poza Jardunaldiak. XI. edizioan diskogintzaren inguruak aztertu dira.

Web orria berritzea. www.trikitixa.net Elkartearen web atari korporatiboa erabat berritu eta itxuraldatu da aurten. Ikusgarriago eta erabilerrazagoa da orain webgunea.

Fakturazio zebitzua. Hainbat trikitilariren kezka erantzunez, autonomo ez diren musikariei begira martxan jarritako fakturazio zebitzua da. Euskal Herriko Trikitixa Elkartearekin Artista Kontratua sinatzeko aukera ematen duena. Hala, saio bakoitzeko, Gizarte Segurantzian alta eta baja ematen zaio musikariari.

Nabarmendutako horiez gain, dokumentazio lanarekin etengabe jarraitzen du Elkarteak. Eskaintzen dituen zerbitzuen artean, eskutan duzun Altzaporrud buletinaren bitartez ematen du bere berri. Urtea bukatzeko berriz, huts egin ezinezko hitzordua izan da Durangokoa.



San Jose

trikitixa jaialdia

Martxoak 16
17:30tan

Soreasu antzokian

Elustondo anai-arrebak
Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea
Gari eta Iñaki
Jaione eta Ion
Aizpurutxo, Galdos eta Ainara
Eneko Dorronsoro eta Andoni Ezkerra
Kepa Junkera eta Motriku



TRIKITILARIEN EGUNA ANTOLATU DUTE, ORION, ABENDUAREN 28RAKO...

Orion Trikitilarien Eguna ospatuko da abenduaren 28an; goizetik kalejirekin hasi eta arratsaldean tabernatako erromeriekin bukatuko den egunpasa izango da.

Imanol Urkizu pandero jolea dabil antolakuntza lanetan eta hark azaldu dio Alzaporruri nondik sortu zen ideia. "Iaz Orioko Danbolin musika eskolak trikitixa eta pandero topaketa antolatu zuen. Honen ondoren, kultur zinegotzia den Jon Agirresarobek aipatu zidan ea zergatik ez genuen Orion trikitilari egun bat antolatzen, eta hortik sortu zen festa honen ideia". "Orioko musika eskolan 35en bat ikasle ari dira soinua eta panderoa ikasten. Egundonekin, gure asmoa, trikitilari eta panderojoleak elkarren artean ezagutu eta harremana izatea da. Jakina, herria girotzea ere bai, eta kalean jotzeko ohitura indartzea.

Orioko Udalak antolatu duen egunerako, Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eta herriko lau tabernen laguntza izan dute. "Festa bukaeran erromeri batekin bukatu ordez egokiena tabernetan erromeri txikiak antolatzea iruditu zitzaigun. Herriko lau tabernarekin hitz egin genuen eta berehala beraien laguntza eskeini ziguten Loretxu, Arkaitz, Salatxo eta Kolon Txiki tabernatan.



EGITARAUA

- 11:30** Herriko plazan trikitilariak elkartzea
- 12:00** Kalejirak abiatuko dira herriko kaleetan barrena. Talde finkorik gabe, nahieran.
- 14:00** Bazkaria. Izena emateko bideak, beheko oharrean.
- 17:00** Tabernatako erromerien hasiera.
- **17:00 LORETXU tabernan:** Zabale eta Lurdes Alkorta
- **17:45 ARKAITZ tabernan:** Oskar eta Aitziber Estanga
- **18:30 SALATXO tabernan:** Maixa Lizarribar eta Ines Osinaga
- **19:15 KOLON TXIKI tabernan:** Azkonobieta eta Imanol

Bazkarirako izena emateko:

- 943 134 409 / 619 455 810 telefonoetara deituta ala ketxea@oriokoudala.com helbidera idatzita
- Bazkarirako dirua sartzeko kontu zenbakia: 2095 5176 82 1063907926
- Prezioa: 15 euro
- Izena emateko azken eguna: abenduaren 18a

... ETA EGUNA BOROBILTZEKO, TRIKITIXA ELKARTEAREN URTE AMAIERAKO AFARIA, ARIZTERRAZUN

Duela makina bat urte ekin zitzaion Inuzente Egunarekin afaria antolatzeari. Sarri, ordea, astean zehar afaritara joateko jendeak zailtasunak izaten dituela eta, Eguberri egunaren eta Urteberri egunaren tarteko larunbatean egin izan da afaria.

Aurten, ordea, ez zegoen zalantzarako tarterik: larunbatarekin egokitu da Inuzente Eguna. Beraz, abenduaren 28-rako antolatu da afaria, Aia San Pedroko Arizterrazun.

Afarirako izena emateko: 943 83 28 28 telefonoan. **Oharra:** izena ematen duten aurreneko 80 pertsonentzat izango da afaritarako tokia.

NOIZ: abenduaren 28an, 21:00tan

NON: Arizterrazu jatetxean



ZUMARRAGAN EGINGO DA GEURE KOLKOTIK DISKOAREN AURKEZPEN EMANALDIA

Joan den abuztuan Faborez bildumako diskoarekin egin bezala, Geure Kolkotik lanean bildutako piezak jendaurrean erakusteko garaia iritsi da. Zumarragan egingo da aurkezpen emanaldia abenduaren 12an; Santa Luzia bezperan. Urretxu eta Zumarragan azoka egun handia izaten da Santa Luzia egunez eta, aurten, trikitixa sorkuntzaz gozatzeko aukera izango da, bezperatik jai giroan murgiltzen hasteko.

Zabaleta ez beste partaideak bertan izango dira. Trikitilari bakoitzak 20 minutuko saioa egingo du diskoan jasotako piezak eta bestelakoak, elkarrekin uztartuta. Honoko soinu joleak arituko dira, beraz, Zumarragako Geure Kolkotik jaialdian.

- Alaitz Telletxea
- Saioa Lizarralde
- Ander Malbadi
- Imuntzo

NOIZ: Abenduaren 12an, 19:30an

NON: Zumarragako Zelai Aristi Zinean

JOSEBA TAPIA: TXIMELA KAPITAINAREN IZARRAK

Gitarra hartuta, kantagintzaren bideari eutsi dio Joseba Tapiak bakarka osatu duen seigarren diskoan. Bide interesgarria irudituta, kantagintzari eskaini dizkio azken aldian lana eta ahalegina: "Estilo eta edertasun estetikoak haratago doa niretzat kantagintza. Pentsamendua eta konpromezua, literatura eta musikaren bidez. Eta hau guzia euskararen hizkeran emana. Horretarako nire ahotsa erabiltzen dut eta parean jartzen zaidan soinu tresna. Ez dut frenorik jartzen horretan".

Edukiz, lan monografikoa aukeratu du beste behin ere: Luis Rezola *Tximela* esaten zioten kapitainaren letrak bildu ditu. "Pertsona bati, leku bati, eta garai bati lotutako lana da. Duesoko presondegi historikoan, 1937an idatzitakoak dira letrak. Duesotik Puerto de Santa Mariara eraman zuten. Seguru han ere idazten jarraituko zuela, baina oraingoz behintzat galdutzat eman liteke Puertoko produkzioa. Testu hauen berri Auspoa saila lardaskatzen ari nintzela izan nuen. Antonio Zavalak bi tomatan argitaratu zuen Luis Rezolaren obra osoa 1989an, presondegikoa eta kanpokoa: *Bakardadeko ametsak I eta II*. Duela gutxi konturatu naiz Oskorrik musikatua daukala Rezolaren bertso sail bat".

Testuak eraman du musika tresna hautatzera. "Gitarra soilak kartzela barruko egoera hobeto girotzen zuela pentsatu nuen. Sotiltasuna eta hariaren negarra ederki zetorrela horretarako. Kantuak gitarrarekin sortu nituen eta, bere bakarrean, gitarra eta ahotsa ia nahikoa zela erabaki nuen. Gero txeloak eman dio falta zuen ukitua, Luis Fernandezek bete-betean asmatu du. Bere txeloaren soinua izugarria iruditu zait. Azkenik Jexuxen teklatura izan da gehitu dudana bakarra. Oso apal, baina hor dago organoa leloetan eta tarte txiki batzuetan".

Eta tira eta tunba lanarekin, karlista eta liberalen arteko liskarren berri jaso zuen. Disko berri honekin, ordea, atzera, *Agur Intxorta maiten* bildutakoan garaira jo du Tapiak. "Euskaldunen historiak agertzen dira guzietan eta, denbora pasa arren, kontu batzuk betikoak dirudite. Memoria astintzen dute, gure izatea esplikatzeko, guk egindakoak eta guri eginak agertzen dira bertso hauetan. Beraz balio handia dute kontuak nola diren jakiteko eta aurrera egin beharreko bideak argitzeko. Injustizien zerrenda handia da eta euskaldunek bizkarra gorritu dute dagoeneko. Oso aktualak dudarik gabe. Kantu bihur litezkeen testuak interesatzen zaizkit, eta hutsune bat betetzeko baldin badira, hobe. Kantutegi "historiko" hauekin, artean kantagarri ez zegoen zerbait daukagula orain, esango nuke".

Diseinuari erreparatuta aldiz, *Real Politik* diskoan hasitako elkarlanak segida izan du. Donostiako Zinemaldian Zinemira saria jaso berria den Juanba Berasategirenak dira diseinua eta iruditeria. "Paperarekin eta txuri-beltzeko ñabarduretan iradokitasuna, keinua, garrasia ageri du deskripziorik egin gabe. Irudi horiek biderkatu egiten dute hitzaren mezua".

DISKOAREKIN BATERA, WEB BERRITUA ETA TWITTER KONTUA

Teknologia berrien arrastoan, www.josebatapia.com web-gunea eguneratzearekin batera, twitterren ere kontua martxan jarri du Tapiak. Hala, web atarian, *Zakurraren bibolina* zigilua sortu zuenetik kaleratutako diskoak erosi eta jaisteko aukera jarri du. "Teknologiak martxa bizkorra daroma kontu honetan. Bertan egon beharra dago onerako bada, eta bestela, atzera egiteko ez nuke zalantzarik egingo". Formatu elektronikoz eta pirateatzeaz aldiz, honoko gogoeta egin du. "Diskoa kopiagarri jarrita, agian, pirateo gutxiago izango dut. Pirateoak badauka zerikusirik enpresa diskografikoek izan duten prezio politikarekin, diskoak luxuzko artikuluak izan dira. Hori ahaztu egiten zaigu batzuetan. *Zakurraren bibolina* zigilu xume bat da, neure diskoak, ahal dela, dirurik galdu gabe produzitzeko".

Ez dela twitter-zalea aitortu arren, "badirudi gaur horren beharra dagoela promoziorako". Nahi izatera, beraz, @tapiatximela izenarekin topatuko dituzue lan honen inguruak.



Tximela



HAMAIKA IKUSTEKO!

FASIO, MAURIZIA ETA LEON, INOIZ BAINO HANDIAGO

Musikari handiak izan zirela bai baina, hiru metro hartu behar zituztenik ere! Areatzan (Arratian) txotxongilo erraldoiak egin dituzte Bonifazio Arandia Fasio, Maurizia Aldeiturriaga eta Leon Bilbaoren irudiarekin. Panpin handi hauekin, eskualdeko musikari historikoak gogora ekarri dituzte *Gure musikari handiak* izeneko egitasmoan.

Txotxongilook itxuratzeko, erraldoiak egiten aritzen den Les Grandes Personnes etxeko kideak izan dira Areatzan laguntzen. Baina egitasmoa ez da horretan geratzekoa; 2014ko Lekeitioko Kale Antzerki Jaialdian antzezlanaren osatzekotan dira panpin erraldoi hauekin, Oreka TX eta Kukubiltxo taldeak.

Fasio, Maurizia eta Leonekin batera, bi txalapartari gipuzkoarren panpinak ere egitekotan dira: Pello Zuaznabar eta Ramon Goikoetxearen irudidunak, hain zuzen ere. Francoren diktadura garaian txalaparta bizirik gorde zutela azaldu dute antolatzaileek eta, horiek gabe, egun ez litzatekela txalapartarik izanen.

Saioa Lizarralde: "Geure Kolkotik-en aritzeko proposamena egin zidatenean, ez neukan ezer konposatuta. Banekien diskoko aurrenekoa izango nintzela, aurreneko hiru kantuek nireak izango zirela, eta zeozer bixia, poxgarria, egin nahi nuen, umorearekin. Plazatan zelebrequeriak ikusten ditugu eta, sarri, "aizan, aizan.." entzuten degu eta horretxegatik, kantu alai hori aurrena. Gero, aita zenari pieza bat egiteko zorra nuen eta trikitixa sortu nuen. Eta hirugarren pieza geroxeago egin nuen, lasaiago".

(Euskadi Irratia, Arratsean, 2013-11-06)

Imuntzo: "Fandango, tex-mex eta kumbia bana aukeratu ditugu, gure erreperioriotan holakoak izaten direlako gehien. Parte hartzeko esan zidatenean, buru belarri jarri eta egin nituen. Aipatu nion Belokiri letra batzuk egiteko... eta ildo zuzenetik joan baino, pixka bat bihurritzea gustatzen zaigu normalean, txispa puntu batekin. Jendeak jardun ahal izateko ere, bestela inork ez dizu ezer esaten. Eta hortik, bikoterik eza eta bikoteak haustea, egunean dagoen gaia da beti. Maitasunaz kantatuz gero, jendeak beti arretaz hartzen ditu letra hauek".

(Euskadi Irratia, Arratsean, 2013-11-06)

Xabi Aburruzaga: "Trikitilarien diskotan, orohar, oso presente izaten da trikitia, eta batzuetan nekatu egiten zara horregatik. Eta nire helburua izan da trikitiaren gosea piztea. Entzulea berriz trikitia noiz sartuko eduki nahi genuen"... "Banabil berriz gauza berriak prestatzen hasita, eta berriz trikitira bueltatzen nabil. Sus-traietara. Trikitia eta panderoa, biluzik. Ez da ezer demostratzeko, baina ni trikitilaria naiz. Disko hau izan da... zapatuan izan dut ezkontza bat lehengusuarena, eta trajearekin joan naiz, gorbatarekin. Egun horretan ezagutzen gero, pentsatuko duzu halakoa naizela, baina normalean ez naiz hala ibiltzen. Diskoan gorbatarekin nago, baina nire errealitatea bestelakoa da, eta, nire ustez, hori ez dut inoiz ahaztu behar. Beste maila batean zaudela pentsatzen duzun unean fusio horretan galdu egingo zara".

(Berria 2013-11-21)

DURANGO ETA 2014KO EGUTEGIA

Euskal kultura eta sorkuntzaren erreferentia den Durangoko Azokan izan berria da Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Azken urteen aldean, izan da aldaketarik, ordea; Bizkaiko Trikitixa Elkartekoek ezin izan dute etorri eta Txistulari Elkartearekin banatu dugu postua. Elkartearen azken urteotako produkzio guztiarekin batera, urte berrirako prestatutako egutegia ere eskura izan da. Honatx, 2014ari ongi etorria egiteko Elkartek aukeratu duen irudia. Urte berri on!

